

TOKIKOM KAZETARITZA SARIAK 2017. **Azken epaia**

TOKIKOM KAZETARITZA SARIAK 2017 deialdira aurkeztu diren proposamenak banan-banan sakon aztertu ondoren, epaimahaia osatu duten **Amaia Pavon Arrizabalaga, Maria Gonzalez Gorosarri eta Edorta Arana Arrieta** jaun-andreek, idazkari lanetan jardun duen Joxe Rojas Granjaren laguntzaz, ondoko hau

ERABAKI DUTE:

1.- Honela banatzea 2017ko deialdiko TOKIKOM KAZETARITZA SARIAK:

AZALIK ONENA kategoria

Saria ematea Hiruka astekariak aurkeztutako "Itsasadarrean, bizirauten" azalari. Honako arrazoi hauek nabarmendu ditu epaimahaiak saria emateko orduan:

- Argazki nagusiaren kalitate teknikoa eta balio estetikoa
- Harekin batera, azal osoaren konposizio zaindu eta dotorea, elementu informatibo asko baditu ere, orrialdea era orekatuan eta gehiegi kargatu gabe kokatuta, efektu arin eta garbia lortuz.
- Azaleko elementuen artean, kolore eta tonalitate zaindu eta koherenteak, azal osoari bateratasun eta koherentzia grafikoa ematen diotenak.

Saridunarekin batera, beste bi lan ere nabarmentzea finalista gisa:

- **Anboto astekariak aurkeztutako "Martxoak 31" monografikoaren azala:** Konposizio garbia, eta irudiaren tratamenduak lortzen duen inpaktua bereziki goraipatuz.
- **Puntua astekariak aurkeztutako "Garroña":** portada sinple, baina aldi berean deigarri eta ikusgarria, eta erradiazio arriskuaren ikurrarekin egindako jokoari esker, informatibo eta adierazgarria aldi berean.

EDUKIRIK ONENA kategoria

Epaimahaiak nabarmendu nahi du oso zaila egin zaiola kategoria honetan erabaki bat hartzea, batez ere oso ezaugarri ezberdinetako lanak aurkeztu direlako bertara. Gainera, parte hartze guztiak zoriondu nahi ditu, oso maila altuko lanak aurkitu dituelako proposamenen artean, gaien aukeraketa eta lanketa oso profesionala erakutsiz.

Eztabaida luze baten ondoren, epaimahaiaren erabakia da **EDUKIRIK ONENA kategoriako saria ematea Anboto Astekariak aurkeztutako "Martxoak 31" monografikoari.** Besteak beste, honako arrazoi hauengatik:

- Gaiaren lanketa sakon eta mamitsua oso ikuspegi anitz eta ezberdinetatik: lehen eskuko testigantzak, informazioa, ikerketa, iritzia;
- Ikuspegi politikoa ere txertatzeko adorea: Argentinako kerella, Durango udalaren posizionamendua; horrek beste ikuspegi bat ematen dio gaiari, eta Anbotok ederto erantzun dio horrek dakarren erronkari.

- Aniztasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, hiru belaunaldiren ikuspegiak txertatzeko ahalegina, eta emakumezkoen papera agerian uztekoa.
- Kolaboratzaileen kopurua eta maila ere nabarmentzekoa da, eta balio erantsia ematen dio argitalpenari.
- Grafikoki ere oso tratamendu egokia, diseinua mimo handiz zainduz.
- Eskualde osoa hartzen da kontuan, eta azken produktuak interesa du ikuspegi nazionaletik ere.

Saridunarekin batera, beste bi lan ere nabarmentzea finalista gisa:

- **Geuria hilabetekariak aurkeztutako *Trena gertu dugunean* erreportajea.** Besteak beste, epaimahaiak azpimarratu du arazo orokor bat bertoko errealitatera ekartzeko ahalegin ederra: ikuspuntu ezberdinen lanketa, elementu informatiboak grafikoki era berritzailean txertatzeko modua;
- **Karkara hamaboskariak aurkeztutako *Hura bai martxa* erreportajea.** Toki komunikabideek ondare inmateriala gordetzeko duten balioaren adibide ederra da lan hau, eduki aldetik oso ondo osatua, bateko eta besteko testigantzekin, eta forma aldetik goxo idatzi eta maketatua, irakurtzeko oso atsegina.

IKUS-ENTZUNEZKOAK kategoria

Atal honetan ere, epaimahaiak zorionak eman nahi dizkie parte hartzaile guztiei, aurkeztutako lanen aniztasun eta kalitateagatik. Sariari dagokionez, hauxe da erabakia:

Saria ematea Baleiek aurkeztutako “*Tapa-Pala II*” bideo sortari. Honako meritu hauek aipatu dituzte epaimahaikideek:

- Eduki aldetik oso produktu hezitzailea lortu dute, balio informatibo handikoa.
- Teknika eta estetika aldetik, gustu handiz egindako bideoak dira. Nabarmena da mimo handiz egiten dutela plano aukeraketa, argiztapena eta grafismoaren erabilera.
- Meritu handia du berez telebista ez den medio batek produktuan kalitate honetara iristeak. Txalogarria da euskarri berrietara hedatzeko ahalegina.
- Formula oso esportagarria da beste komunikabide batzuek beste gai batzuk lantzeko.

Saridunarekin batera, beste bi lan ere nabarmentzea finalista gisa:

- **Anboto astekariak aurkeztutako *Paperak* dokumentala:** edukiz zein alde teknikotik oso ondo egindako produktua, unibertsitateko ikasleekin elkarlanean sortutakoa, balio informatibo eta estetiko handikoa.
- **Goiena telebistak aurkeztutako *Harmailatik* saioa:** kirola tratatzeko modu original eta goxoa, kirolariak eurak hurbiletik ezagutzeko aukera ematen duena.

AIPAMEN BEREZIAK

2.- Aipatutako hiru sariez gain, epaimahaiak erabaki du **bi aipamen berezi** egitea:

Hirukak aurkeztutako udako ale monografikoa. Hirukako lagunek ahalegin berezia egin dute paperean jasota datozen eskualdeko herrietako jaien egitarauak interneten ere txertatzeko, mapa interaktibo batean. Epaimahaiak oso ondo baloratu du informazio horri izaera transmedia emateko ahalegina, eta

aipamen hau erabili nahi du beste komunikabideak ere bide hori aztertzeraz animatzeko akuilu gisa.

Puntuak astekariak genero berdintasunarekin erakutsitako konpromisoa. Jakina da toki komunikabideetan sentsibilitate berezia dagoela berdintasun gaieko, baina Puntuak sariketara aurkeztutako lanetan nabarmen geratzen da gaia propio lantzen dela etengabe: bada berdintasunari buruzko monografiko bat, bere buruarentzat zein beste medio batzuentzat tresna baliagarria den eskuliburua, genero aniztasunari eskainitako portada bat ekainaren 28ko aitzakiaz... eguneroko lanean txertatutako konpromiso hori aipagarria iruditu zaio epaimahaiari.

Amaitzeko, epaimahaiak berriz ere aipatu nahi du jasotako lan guztien maila, toki komunikabideetan egunero eta txikitasunetik egiten den lan eskerbaren erakusgarri.

Bilbon, 2017ko urriaren 10ean


Joxe Rojas
Idazkaria
TOKIKOM
CIF: D75069064